

AZKUE

# AGIRE, BERETERGOAN


1920'G. URTEKO JOÑAILA'REN

- 5'EAN, DOMINGO AGIRE -

JAUNAREN OMENEZ EGINDAKO

----- ITZALDIA -----





## AGIÑE, BERETEÑGOAN

---

Elizgizon entzutetsu arıtean badira bat edo batzuk beren deya, Elizarako deya, garatuta gero, gizon duta gero izan dutenak. Milan'go Anbrosio andiak, uri artako buruzagi (*prefecto*) zala, kristautu baino ere lenago somatu zuen dei ori; ta, beraren egikizuna utzita berealaxe, len gorputzez izan zituen mendekoak, arimaz izan zituen ordutik: apezpiku egin zuten. San Paulino de Nola'k bere adiskide Sulpizio Sebero'ri egindako eskutitz luze batean dio, eguberiz, Bařzelona'n arkitzen zalarik, eriak apaiz egitera beartu zuela ta berak atzerapena erakutsiafen, ezin garaitu izan zuen efitaf ayen gogoa; edo, santuak berak dionez, Yainkoa'ren txedeari (asmoari), ezin yařki al izan zitzayon.

Maizenik, órdea, eredutzat (modelutzat) ageítzen zaizkigun elizgizonak txikitatik izan dute zaletasun ori. Gure Agife'ri ere, gazte-gaztetan piztu zitzayon bere biotzaren muñ-muñean elizarako ta elizgizadirako gaía. Orain be'rogei-be'rogeita ama' urte Bilbo'ko berete'rburu (artzipreste) zan Mariano Iba'guengoitia'k Onda'roa'tik berarengana eraman zuen, berarekin bizi izatera, bere meزامutil ta lankidetro izatera. Biotza samur'urik oroitzen zituen Agife'k, Seminario'an ginan egun txuri ayetan, Bilbo'n igaro zituen urte gozoak: ango Luistafen (Luisisten) kongregazioa, ango *Círculo Católico*'n egiten zituzten age'rkizunak (teatru-lanak), eta batez ere nagusi izan zuen apaiz a'rgitsu, sutsu, santu-usaindun uraren irakaspenak. Elizgizon andi a'rk berak eskuratu zion ikastaroan (ka'feran) bea'f izan zuen diru guzia, ta bea'fago zituen atsa (spíritus) ta kemena ere berak biotzeratu. Iba'guengoitia ta Labayru izan ziran gozaroen aldi a'rtan aipatzen zituen izenak.

Guk órduan ezkenakien zearo, liburuetan iraku'rita beintzat, elizgizon oso betegin batek bea'f dituen biozketa ta ontasunak

zeintzuk diran. *Vita clericorum, liber laicorum*, esan zuen Elizguraso andi batek. *Vita sacerdotum, liber levitarum* gaineratu diteke. Lengo astean Gazteitzen nintzala, ango nere adiskide kanonigu batek ziraustan ezagunak izaten dirala Seminarioan, beren erian apaiz gaítsuak dituzten beretergayak (seminaristak).

Berez ere mendu ona, ayuri egokia, izakera bikaina zuen gure ikaskide Agiře'k, luř ongi layatu ta ezo batek galazia ařtzen duenez, apaiz baten ontasunak (biřtuteak), ařtzeko. Paketsua zan, apala zan, etořkořa (condescendiente), ořtzarģia (simpático) ta otzana. Ezti utsezko břeska, ařģizai gabea zirudien aren biotzat. Arantze gabeko ařosarik eztala diote. Ura belarķia izan balitz bai. Odol-goři izateak baditu odol-zuřbilak eztauzkan alde bat edo bestetxo, alderantziak geyago. Odol-goři geranok, lanean asteko, zainetan darabilgu baikořtasuna (optimismo); odol-zuřbilak geyenak izan oi dira ezkoř (pesimistas). Odol-goři geranok iraunkořago izan oi gera geron asmoetan, lanetan sendoago; bainan gizarķtean bizi izateko, alde

andia daukate aurpegi-txuri, ayurí biguñdun gizonak. Au gazterik ikusten nuen ta, begiak lausotutxe izan aŕen, zaŕago ta aŕgiroago dakust orain. Seminario'ko urte alai ayetan odol-gofi ginanok, saŕberitan beintzat, batean zutik bestean belauniko, okeferiatxoren baten oŕdaina aŕtzen genuen aŕtean, Agiŕe odol-zuŕbila etzan bein ere bide zuzenetik ateratzen ta Elizan izanezik bein ere enuen belauniko ikusi.

Bere izakera paketsuari ta Bilbo'ko bereŕeŕ gaŕtsu len aipatuai eskeŕ zekien Agiŕe'k gero liburuetan irakuŕiko genituen arako *In omnibus teipsum praebe exemplum bonorum operum*, (1) San Paulo'k apaiz gazte bati, Tito'ri, emandako burubidea: «zeŕnaitan eginen onen erakusmen (*exemplum*) ageŕ zaitez».

Bere apaltasuna nolakoa zan yakiteko, alkaŕen aŕteko geŕtaritxo bat edatsiko det. Loyola'ra uda batean yoateko gogoz, alde-aŕez itunduak ginalarik, Lekeitio'tik Ondaŕoa'rako bidea mendiz igarota, Antigua'tik

---

(1) Tít. II, 7.

beera amildua bezela ninjoala, an ziran bide-  
lagun izango nituenak. Bere etxe-ondotik  
igaro beař nuen ta berak itz auek otzan-otza-  
nik zuzendu zizkidan: «Ik, nerea lango etxe  
tutu batean eztek sařtu nai izango».

Gizonak: Conde'ren semetzat ařtu nin-  
duen nere adiskide maiteak; ori gero lau ur-  
tetan elkařen bařuko ginala.

Gure bařukotasunaren beři beste geřtari  
onek emango dizute. Bi urte lenagokoa zan  
yazokizun au. Egubeři-opořegunetarako *El  
puñal del godo* ikasi ta atontzen ari ginan.  
Ondařoa'ko semea (bera zan ařtarako gaye-  
na ere-ta) *Don Rodrigo* egin genuen; Ber-  
gara'ko seme ařgi Isidřo Mujika, *el Monje*;  
Orđuñar bat, *Don Julián*; eta beren ařteko  
odol-gořiena Teudia egin zuten. Bakoitzak  
bere kizuna buruz ikasita gero, esku ta be-  
soai eragiten ta ageřtokin igitzen ere asi  
beař genuen; ta jakiņa: asbeřiak beti eza-  
gun. Teudia trakets-samař zebilen ta molda-  
kaitz zerabilzkien beso ta eskuak. Gau ba-  
tean gelarontz ginoazela, isilka-misilka ta  
biguñ, «i—esan zion Don Rodrigo'k Teudia'ri  
—eskuak erabilkeran, beatzak eztituk ořela

banatu beař. Eskuketa bat ona izateko, elkař yo beař ditek beatzak.» Ořduko Teudia'k, gauř emen irakuřtzen ari dan onek, eskeřtsu ta maiz oroitu izan du Don Rodrigo'k eman zion lenengo ikaskizuna.

Castilla-aldean nintzan iru urte ayetan sařtu zan bereteřgoan (apaizkuntzan) Agiře, gazterik umo. Urkiola'n eman zuen lenengo meza. Apaiz bezela, bere eřiko Antigua deritzayon baseliza txukunean itz egin zuen lenengo aldiz. Lasteř zabaldu zan Bizkai ta Gipuzkoa'n bere iztun-izena. Lau bat urte zeramazkien bereteřgoan, Begoņa'ko Andre Maria buruntzitua (koroetua) izan zanean. Bederatzi egun iraun zuten elizkizunak. Goizean-goizean nořbaitek euskerazko itzaldi bat egin beař zuen. Batzořde (comisi3n) ařtako nere lagunak neri eman zidaten bederatzi iztun edirotzeko arazoa. Domingo Agiře izan zan oyetatik bat. Bederatzi goiz ta ařatsalde ayetako elizkizunetan ořkesta andia beař zala, kantariak ere ugari ta bikainak. Gazteitzagino yoan ginan txiřibikalari (biolin-jotzaile) bila. Tipleak Durango, Oñati ta Zumařaga'tik eramán genituen. Oyulari



ta orkestralari ayek garbi-garbi egin ziguten gure diru-kutxa ta atzenean iztunentzat etzan izan yoan-etofiko txaupenak (gastuak) ordaintzeko adina ere. Txit bat eztiot bein ere Agiré'ri argatik entzun. Egia esan bear da ta beste iztunen artean ere batxo etzan espatsu agertu. Bere egoaria (pazientzia) erakusteko gertari au baizik ezpalitz, enuen aipatuko. Gaztetxotatik izan zan San Paulo'k ikasle batzuri eskatzen zien bezelakoa: *in omnibus exhibeamus nos sicut dei ministros in multa patientia* (1) «edozein gertaritan, Yainkoa'ren eskudun bezela, egoaritsu. epe an didun agertu bear degu».

¡Epea! ¡Egoaria! ¡Ezaldietan isiltzea! Norbaitek uste izan lezake ontasunen artean berau dala ezerezena, erazena, samurena, aleginik bear eztuena. Entzun ezazute apaiz andi baten itza. Tertuliano'k azken-urtetan itzali bazan ere, Africa'ko eliz-izaf argitsua zalarik, ontasun onezaz gutun bat (liburu bat) egin zuen eta an bere buruaz dio: *Miserrimus ego semper uxor caloribus impa-*

---

(1) Ad. Titum. II, 7.



*tientice*. (1) «Ni, erukarien au, urduritasunaren suak beti ere oi nau». Onetan Tertuliano'k gure artean ere baditu aldakistenak.

Nere lan au zuentzat soil-soilik egina baltz, aski litzake esan dedantxo biotz ederuraren ontasun au—egoafia—nabaritzeko. Bainan gure urango gizaldian, bera ezagutu eztuan norbaitek, goiz onetan emen azaldu diran idaskiak irakurita, esan lezake, odol-zurbila bazan eztala arigafia epetsua izatea, «odol-zurbil, biotz-kikil» dirudi-ta. Nor zan etzekien etorkizuneko ori erantzungo diot, noizean bein bazekiela beste edozeinek bezain bizitasun andia erakusten. Berarekin teilape batean bizi izandako batengandik yakin det gertari au. Bein ogean eri zelarik, Zumaya'ko kale polit artan norbaitek ahen (blasfemia) izugafiak Yainkoa'ren aurkakoak yaurtiki zituen, ta berak ogea utzita gogofki aurpegi artu zion ahentiari.

Kapelau-etxetxo artako ikusguak (miradorak), izketan baleki jamaika gertari eder, Agife beretea nor zan yakin-arazteko, eda-

---

(1) De pat. c. 1.

tsiko lituke!! Eskale gaixoren bat uri zainak besondotik elduta ateratzen ikusiz, apaiz biotz-bera ar̄k yetxi ta al<sup>z</sup>zuen eskuartetxoa emanetz, bein baino geyagotan inguruko bafesitxoetarako paper lagungafiren bat ematen izan zion. Dirutsu izateko era onak aukeran izan omen zituen ta bere aide ur̄koak beartsuak izanaŕen «lenengo ta bein apaizanaiz» esan ta damutasunik gabe utzi izan ditu era oriek. Bera il-aufetxoan eta il ta gero, oraindik il-beŕi zala, bere ondoan nintzan ta bere azken-naya lenengoz irakufi zanean ere beŕtan nengoen, eta or̄duko ikuskizun ura gogoratuta, Bernardo gurenek (San Bernardo'k), bere gizaldiko apaiz diruzaleai zuzenduriko itz garatz auek gozaro begian ta gogoan sartu ditut: *Quidquid præter necessarium victum ac simplicem vestitum de altari retines tuum non est, rapina est, sacrilegium est* (1). Apaiz etzeratenoi ezaitzute ajola andirik izango, itz oriek itzuli gabe uzten baditut. Aldarera bidean gora ta

---

(1) S. Ber. in epist. II.

bera bizi zeraten anai agur-gariok: itz oroi-  
kari oriek ez gogotik inoiz atera.

Nik neronez nere izakide beretefai zer-  
bait oartzeko gogoa banu, Domingo Agire'  
ren azken-naya gogoratuta, apaiz oso bete-  
gin baten egikizuna bikoitza dala esango  
nuke: ondasuna banatu, inorendu; ondasu-  
nak batu, norberaren du. Gure ereduak ba-  
turiko ontasun askoren artean agirienak,  
nere ustez, eskuzabaltasuna (generosidad),  
aldakaiztasuna (ecuanimidad) ta txautasuna  
(castidad) ziran. Baina lantxo au egiteko  
nere ustea baino nayago izan det bere baru-  
ko beñi ongien zekien batena erakutsi. ¿Zein  
dala uste dezu —galde egin nion oni—kape-  
lau ta aita izan dezuten apaiz eredu oren  
ontasunik andiena? On ereile izan da erant-  
zut dit. «Pasó haciendo bien». Beste onen-  
beste esan zuen Jesukristo'z beraren urbilen  
bizi izan zan batek, San Pedro'k: *pertransiit  
benefaciendo*.

Askotan ereiten omenzuen, Evangelioko  
ereileak bezela, aritar-tean, eskale ar-danko-  
yen eskuetan, eta norbaitek argatik aurpegi  
artzen zionean «ezta ar-dura—erantzuten bi-

dezuen — onerespena (karidadea) Yainkoa-  
rengatik egin beař da, noř zein dan ikusi  
gabe». Onen antzeko beredin geřtari edatsi  
ditezke. Nik, ordea, labuř izatea agindu di-  
datelako, ezin sařtu izan ditut lantxo onetan.

Oñati'ko batzař aztuezin ařtan, euskal-  
tzaleok bera buru izan genuen egun alai  
ayetan, inoiz baino zuřbilago ta maskalago  
ikusiařen, uste genuen an ereindako Euskal-  
tzaindi-aziak, biotzetan erein genuelako, biř-  
bizturik uřte batzuetan bazan ere lankide  
izango genuela. Lau aldi soil-soilez Gipuz-  
koa'ko aldundian gureganatu al izan zan.

Nere uřteak zituen. Neri bezela, ari ere  
Yainkoa'k itsasondoan ařkaitz-gainean aton-  
du zion seaska. Auřzarotik asita uginen  
(olatuen) buřundara indařgariak durundi egi-  
ten zigun belařietan eta gure biriak itsasaize  
mařdul txistulariak gogořtu zituen. Ala ere,  
bere uřteide geranok emen utzita, umo-umo  
zalako-edo, berarengana, guk nai eta beař  
baino askozaz lenago, dei egin zion Jaun  
saritzaileak. Azken-itzak, eřdizka ebakiak,  
euskerazkoak izan omen zituen, noski An-  
dře Maria'ri zuzenduak.

Bera ilta uréngo batzarean Euskaltzaindia'k, norbaiten asmoa aintzat artuz, bere euskaltzaingoa zerura eraman duen Agife'ren eresiak (poesiak) marádo batean argitaratzea erabaki zuen. Liburu óren domua (prezioa) lau-bost pesetakoa bada, Euskaltzaindia'k pozik artuko ditu lau-bost óren órdez zórtzi naiz amar naiz geyago, biltzen dan diru guzia bere aide urkoenak eskuratu dezaten. Berak egin etzuená egin dezagun gerok. Berak egin etzuelako, dirutsu izan nai etzuelako, uste izan diteke zeruan gorago arkitu izango duela betiko saria; bainan eztitzagun utzi bere etxeakoak luéan beregi, apalegi, utsegi bizi izaten. Luéan bizi zan artean eskeítsua ta eskuzabala zan. Zeruan etzayo eskua estutuko.